

Ikerketari dagokion informazio politika datuak babesteari buruz

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Arduraduna - Nor da datuen tratamenduaren arduraduna?

Deustuko Unibertsitatea

IFZ: R4868004E

Helbide elektronikoa:

- Nazionala: deiker@deusto.es
- Nazioartekoa: irpo@deusto.es

Posta helbidea: Unibertsitatea etorbidea, 24-Bilbo (PK-48007)

Datuak babesteko ordezkaria:

Auditoretza eta Barne Kontroleko zuzendaria

Telefona: 94 413 94 30

Helbide elektronikoa: dpo@deusto.es

Helburua - Zertarako tratatzen ditugu datuak?

- Irakasleek edo ikertzaileek egindako ikerketako jarduerak eta proiektuak kudeatzeko.
- Curriculumak sortu eta kudeatzeko.
- Unibertsitateko Ikerketaren Oroitidazkia prestatzeko.
- Argitalpenak zabaltzeko.
- Egindako jarduerekin interes edo lehenespenerako profilak egiteko.
- Egindako ikerketa jardueren eta lortutako emaitzen zabalkundea egiteko, bitarteko fisiko eta elektronikoen bidez.

Legitimazioa - Zein da datuen tratamendurako legitimazioa?

Datu pertsonalak tratatzeko lege oinarria bi aldeek sinatutako lan-kontratua betetzea da.

Eskatutako datuak eman ezik, ezin izango da eskaera kudeatu.

Hobespenerako eta egindako jardueren profilak egiteko lege oinarria baimena da.

Egindako ikerketa jardueren eta lortutako emaitzen zabalkundea eginez gero, bitarteko fisiko eta elektronikoen bidez, zilegitasun titulua da interes legitimoa.

DUren interes legitimoak, informatutako helburuei dagokienez, hauek dira: zure beharrianetara hoberen egokitzen diren produktuak eta zerbitzuak eskaintzea, baita kontratatu dituzun edo etorkizunean kontrata ditzakezun produktu eta zerbitzuetan baldintza hobeak eskaintzea, nolanahi ere, interesak, eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatuz.

Datuak lagatzea - Nori lagako zaizkio zure datuak?

Zure eskaera kudeatzeak ez du esan nahi datuak hirugarrenei lagatzen zaizkienik, legez hala ezarri ezik.

Ez dakar, bestalde, datu horien nazioarteko transferentzia egiterik ere, ikerketako nazioarteko proiektuak arautzen dituzten hitzarmenetan aurreikusitakoa izan ezik.

Datuak gordetzea - Zenbat denboran gordetzen ditugu datuak?

Jasotako datu pertsonalak ikerketa proiektua amaitu arte mantenduko dira.

Deustuko Unibertsitaterako kudeaketa ekonomiko eta finantzarioko datuak bost (5) urtez mantenduko dira zerbitzua amaitu eta hurrengo bost urteetan mantenduko dira, araudi hori bete behar baitu DUK legez.

Datuak ondorio estatistikoetarako mantenduko dira, datu pertsonalak kenduta.

Jakinazpen komertzialak bidaltzeko eta profiletarako behar diren datuak interesdunak zerbitzu jakin horretan baja eskatu arte gordeko dira.

Eskubideak - Zeintzuk dira eskubideak datuak ematen badizkiguzu?

Edonork du eskubidea Deustuko Unibertsitatea berari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari den ala ez den jakiteko.

Interesdunek eskubidea dute datu pertsonaletara sartzeko, zuzenak ez direnak zuzentzea eskatzeko edo, kasua hori balitz, ezabatzea eskatzeko, baldin eta datuak jaso ziren helburuetarako dagoeneko beharrezkoak ez badira, besteak beste.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzea eska dezakete. Halakoetan, erreklamazioak egin edo defendatzeko baina ez ditugu gordeko.

Zenbait kasutan eta egoera partikularrarekin lotutako arrazoiengatik, interesdunek datuen tratamenduaren aurka egin ahal izango dute. Deustuko Unibertsitateak datuak tratatzeari utzi egingo dio, premiazko lege arrazoiengatik, edo izan daitezkeen erreklamazioak egiteko edo defendatzeko ez bada.

Interesdunek datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, Deustuko Unibertsitateari eman dizkieten datuak eurek jaisteko, formatu egituratuan, erabilera arruntekoan eta irakurketa mekanikokoan, edo Deustuko Unibertsitateetik beste erakunde batera transmititzeko.

Interesduna bere eskubideez balia daiteke web orrian dagoen privacidad@deusto.es helbide elektronikora idatzita. Posta arruntez ere egin dezake, www.deusto.es atariko pribatutasuneko "Eskubideen babesa" atalean adierazten denez.

Horrez gain, zure eskubideak gauzatzeari dagokionez Deustuko Unibertsitatearekin desadostasunik izanez gero, Unibertsitateko Datuak Babesteko ordezkariarengana jo dezakezu, dpo@deusto.es helbide elektronikora mezua bidalita.

Datuak Babesteko Espainiar Agentziara (Kontroleko Agintaritza) ere jo dezakezu erreklamazioa jartzeko, www.aepd.es web orriaren bidez.

Segurtasuna

Datuak konfidentziasunez tratatuko dira eta segurtasuneko neurri tekniko eta antolaketazkoen menpe egongo dira, aldaketa, galera, tratamendu edo baimenik gabe sartzea saihesteko.